



2019ko aurrekontuak onartu dira

Pasa den abenduaren 13an onartu ziren, aho batez, 2019. urteko aurrekontuak. Aurrikuspena, guztira, 2.487.930,09 eurokoa da, pasa den urtekoa baino 135.000 euro handiagoa. Igoeraren arrazoia, aurten aurrikusita dauden inbertsioak. Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzekin konpentsatuko dira, horien gastu osoa estaliko baitute.

Udal langileen lansariak %2,25ko iguera aplikatzea da, bestek beste, aurrekontuetan aurrikusitako neurri bat. Igoera, beti ere, Madilgo gobernuaren aurrekontua onetsi eta iguera ofizialtzen bada, gauzatu ahalko da.

Proiektu handinahiagoen artean jubiloteka dago. Nafarroako Gobernuak udalari utzi dion bidezainen etxeak izan ziren etxe multzoko eraikin batean eginen da. Horretarako, han zerbitzua emateko, alegia, 20.000 euroko kontu saila zehaztu da, Nafarroako Gobernuaren finantzarioa izanen lukeena. Halaber, aurrekontuetan aurrikusita dago aipatutako zerbitzua

eman ahal izateko eraikinean egin beharreko obren gastuetarako partida.

Beste arlo desberdin batean, administrazio elektronikoa martxan jartzeko partida berri bat gaitu da. Animsa Nafarroako Gobernuaren enpresa publikoak prestatuko dituen horretarako beharrezko baliabide informatiko guztiak. Horri esker herrikoek tramite asko online egin ahalko dituzte udalarekin. Partida 2.000 eurokoa da.

Inbertsioei dagokienez, 2019. urteko aurrekontuen kargura joan diren udaletxea egokitzeko eginen diren hainbat lan: teilatua konpontzea, igogailua jartzea eta El Irati S.A.-ren erakusketa iraunkorra jartzeko lekua egokitzea.

Halaber, Longidako udalarekin batera, elkarkidetzan, aurrera jarraitzen dugu Ekaiko Zerrategia auzoa balioan jartzeko proiektuarekin. Aurten proiektua erredaktatuko da, Nafarroako industria ondareko adibiderik garrantzitsuenetako horren

inguruko planari forma emateko.

Bilkura berean onetsita gelditu ziren Kanpondoa enpresa publikoko aurrekontua (466.000 euro) eta Udal Musika Eskolako Patronatuarena (145.020 euro).

Bestalde, aurrikusita dago ere diru-sarrera gehiago edukitzea, lehen aipatutako inbertsioetarako finantzazioa egonen baita. Nafarroako Toki Ogasunen Funttsak udalen artean banatzen duen diru-kopurua igoko da (20.000 bat euro). Kontribuzio zergako tasa igoko da ere: orain %0,21koa da eta %0,22ra pasatuko da. Gogorarazi behar da Nafarroako Gobernuaren asmoa dela toki entitateei exijitzea kontribuzioko zerga tipoa %0,25ekoa izatea. Hori dela eta, poliki-poliki igotzen joan beharko dugu, bat-batean igo behar ez izateko eta horren eragina ahal eta gehien lehuntzeko.

Aurrekontuen dokumentu osoa ikusgai dago udaletxeko bulegoetan.



Udaletxeko obrak, esleituta

Pasa den abenduan eginiko osoko bilkuran esleituta gelditu ziren udaletxea egokitzeko hastear dauden obrak. Kontratazio Mahaiak lehiaketara aurkeztutako proposamenak baloratu eta, Construcciones Lecheri esleitu zaizkio, eta, hortaz, enpresa horrek egingen ditu. Lanaren zenbateko osoa 197.700 eurokoa da + BEZa, eta 15 asteko epea dago obrak exekutatzeko.

Egokitzapena honetan datza: teilatua konpondu eta irazgaiztuko da; hori probestuz, sabaian erabilera anitzeko areto berri bat egingen da eta bertan EL IRATI, S.A. enpresaren inguruko erakusketa iraunkorra jarriko da; halaber, igogailua jarriko da udaleko bulego guztietara iristeko.

Proiektu handinahia da, udaletxeko irisgarritasuna hobetzea eta premiazko lanei ekitea helburu dituena. Nafarroako Gobernuak egindako 2017-2019 Toki Azpiegituren Planaren barnean jasota dago lana.



Zuntz optikoa herrira zabalduko da

Pasa den urteko martxoan jakinarazi genizuen zuntz optikoa Agoitzera ekartzeko obrak egiten ari zirela. Nafarroako Gobernuak, Zuzendaritza Planean jasotakoari jarraikiz, egin zuen Nasartic elkarte publikoaren laguntzarekin, eta hark ordaindu eta exekutatu zituen lanak, Agoizko zenbait lekutaraino ailegatzeko.

Gobernuak herrian dituen egoitza korporatiboak izan dira orain arte banda zabalaren azpiegituraren onuradunak. Telefoniaren arloko

operatzaileen esku gelditu zen, berriz, herri osoan zehar zabaltzeko lana. Adamo izanen da banda zabala etxe guztietara eramanen duen enpresa hori.

Operatzaile berri horrek aprobetxatu nahi izan du telekomunikazioen arloko enpresa erraldoiek utzitako hutsunea, herri gunetxikietara ailegatzeko. Suediako konpainiak, Nafarroako Onena enpresarekin lankidetzan, 19 milioi euro inbertituko ditu datozen hiru urteotan, eta horri esker, aur-

ten, 35.000 etxetara eramanen dute azpiegitura. Adamoren asmoa sare propioa osatzea da, ondoren Orange, MasMovil edo Vodafone operatzaileei alokatuko liokeena egindako inbertsioak errentagarri bihurtzeko.

Zerbitzua kontratatu edo informazioa jaso ahal izateko, telefono zenbaki honetara deitzea du: 900 838 770. Informazioa www.adamo.es. web-gunean ere dago eskura.



Agoitzek eskola autobus zerbitzua zabaltzea eskatu du

Agoizko Udalak duela gutxi aho batez onetsi zuen eskola autobus zerbitzua LH eta Batxilergoko ikasleei zabaltzea duen eskatzen duen mozioa.

Eskakizuna, 16-18 urte bitarteko ikasleei -derri-gorrezkoa ez diren ikasmailak- eragingo liokeena, Parlamentuari helarazi zaio, Batxilergo eta Lanbide Heziketako ikasketak egitera Iruñera joan behar izaten duten ikasleentzako eskola garraio publiko legedia alda dezan. Agoitzez gain, Nafarroako beste udalerrri batzuek ere eskari bera egin dute.

Gaur egun, familiek, udalek eta Hezkuntza Departamentuak martxan jarrita dituzte arazoa arintzeko zenbait neurri, arazoari bere osotasunean erantzun

ezin diotenak. Udalen eskakizuna da gaiari modu global batean ekitea, 16-18 urte bitarteko ikasleekin gertatzen dena funtsezkoa delako Nafarroako zenbait eskualderi eragiten dion despopulazio prozesua galarazteko.

Hezkuntza Departamentua zenbait bilkura egin ditu kaltetuekin, neurria aztertzeko. Kontuan hartu behar da gaur egun eskola garraioa bermatuta dagoela DBH bukatu arte. Departamentuak adierazi duen moduan, gaia konplexua da alderdi logistikotik eta antolakuntzatik begiratuta, eragin handia izanen luke aurrekontuetan eta martxan jartzeko zenbait departamentuetan lan egin beharko litzateke.

Kontsumitzaileentzako zita egutegia

Nafarroako Irache kontsumitzaileen Elkarteak kudeatzen duen Agoizko kontsumitzaileen udal bulegoak berri finkatu du 2019ko lehen hiruhileko egutegia. Horren arabera, zitak asteazkenetan izanen dira, urtarrilaren 30ean, otsailaren 27an eta martxoaren 27an hain zuzen ere.

Ordutegia hauxe izanen da:



10:00etatik 13:00etara, eta zita alde aurretik eskatu beharko da herritarrei arreta emateko dagoen 012 telefono zenbakira deituta. Bertan honako gaiekin lotutako arazoentzako aholkularitza emanen da: etxebizitza, aseguruak, bankuak, aurrezki kutxak, etxeko zerbitzuak, tailerrak, zerbitzu teknikoak, merkataritza administrazioa eta abar.

Kolesterola kontrolatzeko botikak hartzen duten adinekoentzako azterketa medikoa

Osasunbidea Nafarroako osasun zerbitzuak (SNS-O) kanpaina bat abiatu du kolesterola gutxitzeko botiken (estatina edo ezetimiba) erabilera optimizatzeko, botika horiek hartzen duten 9.000 adinokori, hots, adin horretako populazioaren %40ari, egingen zaie azterketa.

Ekimena Osasunbideko botika azpi-zuzendaritzak sustatu du, eta lan talde bat eratu du, lehen arretan lan egiten duten botikariek, geriatrek, familia medikuek eta

abarrek osatutakoa, botika horien preskripzioa egokitzeko estrategia prestatzeko.

Honakoa da kanpainaren lema: "Medicamentos para el colesterol... ¿para toda la vida? / Kolesterolarendako sendagaiak... bizitza osorako?". Osasunbideak informazioa emateko diptikoak argitaratu ditu, euskaraz zein gaztelaniaz, dagoeneko foru erkidegoko herrietako osasun etxeetan eta kontsultategietan aurkitu daitezkeenak.



Irati HHS Mankomunitateak Toki Agenda 21 diseinatzeko hasi da



Irati Mankomunitateak, Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin, Toki Agenda 21 prestatzen hasi da. Planifikatzeko tresna da agenda, udalerrietako jasangarritasuna eta gizarte, ekonomia eta ingurunearen arteko oreka bilatzen duena.

Nafarroako herri asko garatua dute, dagoeneko, planifikazio estrategikoko tresna hau. Orain, eskualdeko Irati Mankomunitatearen txanda da.

Taupadak, Gizarte Ekonomiako Hasi Gazte sariketaren irabazle

Taupadak Hezkuntzarako Agoizko kooperatibak irabazle gertatu da aurten Nafarroako Gazteri eta Kirol Institutuak antolatutako Hasi Gazte Gizarte Ekonomiaren Sarietako lehen edizioan, Egonkortutako Gizarte Ekonomiaren kategorian. Gobernuarekin batera, honako entitate hauek izan dira sariketako kolaboratzaileak: Laboral Kutxa, Nafarroako Gizarte Ekonomiaren enpresen Elkarte (ANEL) eta Europako Enpresen eta Berrikuntzen Nafarroako Zentroa (CEIN).

Ana Herrera Kultura, Kirola eta Gazteri kontseilariak eta Javier Cortajarena Laboral Kutxako lurraldeko zuzendariak Zentral aretoan antolatutako galan eman zioten Taupadak-i merezitako saria, 3.000 € hain zuzen.

Taupadak Haur Eskolaren izenaren oinarrian daude enpresa osatzen duten zortzi bultzatzaileen biho-

Hiru fase ditu Landa Garapena, Ingurune eta Toki Administrazio Departamentuak bultzaturiko tresna honen diseinuak:

- Jasangarritasunaren auditoriaren hasiera
- Jasangarritasunaren diagnosa.
- Ekintza Plana eta Jarraipenerako Plana.

Une honetan jasangarritasunaren azterketa osatzen ari da, eta, horretarako, herritarren partaidetza ezinbestekoa da. Parte-hartzeko aukera bermatzeko, galdegegi bat eseki da mankomunitateko web-gunean, hots, www.mancomunidad-irati.es helbidean. Horrek eskualdeko diagnosa egiten lagunduko du.

tzetako "taupadak". Haien esanetan, zortzi dira beren lana ordezkatzen duten hitzak: «zerbitzua, berrikuntza, haztea eta hezte, konpromisoa, lankidetz, borroka eta anbizioa». Horrelaxe sortu zen kooperatiba txiki hau, arduradunen arabera, «Agoizko txikitxoaren eta haien familiakoen taupadekin erritmora lan egiten duena». Haien bokazioa da «hezkuntza eta hazkuntzan laguntzea».

Hasi Gazte sariketaren helburua Gizarte ekonomia egonkortzea eta zabaltzea da. Izaskun Goñi Nafarroako Gobernuak Industria, Energia eta Berrikuntza zuzendari orokorrak nabarmendu zuenez, «pertsonek daude gizarte ekonomiaren arloko enpresa ekimenean erdigunean, eta gizarteak dituen beharrei erantzun berritzaileak eman diezaiekete, partaidetza eta kohezio handiagoko gizarte lortzeko».



Agoitz Hiria XIII. Argazki lehiaketaren sariak banatu dira

Pasa den abenduaren 14an banatu ziren "Agoitz Hiria" XIII. argazki lehiaketako sariak. Kultur Etxean izan zen ekitaldia, sariketara aurkeztutako lan hobereak ikusgai zeuden bitartean. Herritarren saria, 300 eurokoa, Agoizko Alfredo León Mañúrentzat izan zen, «Edo kalean gora?» argazkiarengatik. Modalitate orokorrean, berriz, «Paisaje con figura», argazkiarentzako joan ziren lehen saria osatzen duten 500 euroak. Lana lehiaketetara maiz aurkezten ohi den eta Agoizko sariketara hiru aldiz irabazle gertatu den Ángel Benito Zapatarena da.



Kultur balantzea

Abenduan, ohikoa den moduan, Eguberrien inguruko ekitaldiak izan ziren nagusi. Hala ere, hilean beste zita batzuk izan genituen.

Euskarabideak antolatu eta Agoizko Udalak lagunduta, abenduaren 3an ospatzen den Euskararen Nazioarteko Egunaren kariatara, «Numenak», mitologian oinarritutako antzezlan, eskaini zen Kultur Etxean.

Bilaketak bi igandetan antolatu zituen kafe-kontzertuak. Espazio desberdinak dira, musikaz eta dantzaz disfutatzeko publiko anitza biltzen duena.

Nafarroaren Eguna dela eta, Mariano García Musika Bandak ohiko kontzertua eskaini zuen Kultur Etxean, eta oraingoan ere arra-

kastatsua suertatu zen. Herriko asko hurbildu ziren emanaldira, eta, urtero bezala, entzutegia gainezka bete zen. Kultur Etxeko Areto Nagusian ikusgai izan ziren Agoitz Hiria argazki lehiaketako aurtengo ediziora aurkeztutako lan hobereak. Sariketa gero eta leku handiagoa hartzen ari da argazkizaleen artean.

Lehen sorospen eta Oinarrizko RCP-ren inguruko bi tailer antolatu ziren, lau saiotan banatuta zirenak. Tailerrak doakoak ziren, parte-hartzaileen adinaren arabera prestatu ziren. Agoizko Osasun Etxeko Ana Fernández Urdaci eta Elena Santesteban Etxauri erizainak izan ziren trebakuntzaren arduradunak.

Irati HHS Manomunitateak, be-

rriz, «Mañana» zinta proiektatu zuen. Filmak gizarte beste eredu batzuk bilatzeko jarraibide argiak eta adibide aberasgarriak eskaintzen dizkigu. Eredu horietan gizatasuna eta Lurra elkarren ondortik joaten dira eta betan sormena eta guztien onura dira nagusi. Dokumentalean, ekologia, ekonomia eta gizartearen arloetako arazoak konpontzen saiatzen diren gertakizun eta pasadizo pertsonalak azaltzen dira.

Eta hilea amaitzeko, «Namor, el niño pez» familia osoarentzako txotxongilo antzezlan taularatu zen. Ikuskizuna argi, itxaropen poesia eta samurtasun oihua da, beren etxeak uztera behartuta izaten diren errefuxiatuek pairatzen izaten duten tragedia eta zentzugabekeriaren aurrean.



Eguberrietako balantzea

Musikak garantzi eta leku handia izan du Eguberrietako programazioan.

Agoizko Musika Eskolak ohiko Eguberrietan eskaintzen duen kontzertua eman zuen aurten ere. Kultur Etxean ospatu zen, eta, berri ere, entzutegiaren gainezka egon zen.

Arrakasta bera izan zuten Eguberrietako egutegian finko diren eta Elizan eskaintzen diren beste bi musika emanaldiek ere: Mariano Garcia Musika Bandak eta San

Migel Abesbatza Txikiak elkarren artean eskaintzen duten horrek eta San Migel Abesbatzarenak.

San Migel Ikastetxeak urte bukarako jaialdia ospatu zuen Kultur Etxean, eta Olentzero 0-3 urtekoentzako Haur Eskolara joan zen, herriko txikiak eta haien gurasoak bisitatuz.

Kultur Arloak, eguberrien inguruan urtero egiten duen moduan, "Eguberrietan Plastikatzan" izeneko plastika tailerra antolatu zuen. Patxi Huartek emandakoa

izan zen, eta 5-12 urte bitartekoei eskainitako 30 plazak bete ziren.

Horretaz gain, herriko haurrek Maridomingiri eraman zioten Olentzerorentzako beren eskutitzak, Jaiotzagileen Elkarteak herrian zehar jarritako jaiotza guztiak ikusteko Bilaketa ahots eta Instrumentu Taldeak lagunduta egindako ibilbidea egin ahal izan genuen, Olentzero etorri zen, Ekialdeko Erregeen mezularia etorri zitzaigun eta Errege Magoen Kabalkada etorri zen, opariz beteta.



53 txanpon "inozo"

Agoizko jende asko sinesgarritasun osoa eman zioten Agoizko Udalak hainbat hedabidetan zabalduko jakinarazpenean adierazitakori, abenduaren 28a bazen ere. Zabalduko berriaren arabera, udal langileek balio handiko hainbat objektu eta dokumentu aurkitu zituzten udaletxeko sabaian, eraikinaren teitua aldatzeko eta igogailua jartzeko obrak hasi aurretik lekua garbitzen ari ziren bitartean. Objektu horien artean eskolako koaderno zaharrak, botilak, banderak eta udalaren eta ospitaleko inbentarioak aipatzen ziren, besteak beste. Aurkitutako guztiaren artean 53 txanpon aipatu zen aurkikuntzarik harrigarriena. Magdalena Frantziakoa Nafarroako erregeordeak Agoizko hainbat abizenen alde emandakoa. Honela esaten zuen idatzia: "Fidelgarritasunagatik, Agoizko herritarrei eman behar zaizkie, irakurri abizenak, eta gainerakoa Hiriko entitateari".

Baina dokumentu horiek ez ziren agertu, ezta banderak eta txanpon zaharrak ere. Ez zen tamainako

aurkikuntzako aurkitutako guztia erakusteko iragarritako erakusketa antolatu ere egin. Dena asmo txarrik gabeko txantxa xumea izan zen, inuzenteen eguna zela eta.

Ziurtatu ahal dugu, hala ere, Magdalena Frantziakoa Nafarroako erregeordea Agoitz bisitatu zuela 1479. urtean, eta Agoitzen agaramontar eta beaumontarren arteko bakearen sinatze ekitaldiaren (gure armari ederraren sorrera) lekukoa izan zela.

